



INTERPRETAZIO-ZENTRO, GIDARI ETA BIDAIA-AGENTZIEN MAHAIA

2022ko urriak 25

GAI-ZERREDA:

1. Ongietorria
2. Sektorearen egungo egoeraren azterketa.
3. Bidalitako dokumentu erantsiaren balorazioa
4. Informazioa hurrengo gaiei buruz:
 - Getxo Bono 2023 kanpainaren udal-proposamena
 - 2022ko kontrataziorako laguntzak
 - Kanpo-sustapeneko hurrengo ekintzak – Bilbao Bizkaia
 - Getxo: helmuga turistikoa adimendunerantz aurrera
 - <Getxoz gozatzeko planak 2023> kanpaina
 - Flysch Bizkaia proiektua
 - Turismo-sektoreko berriazko aholkularitza- eta prestakuntza-programak
 - DEAPIE interpretazio-seinaleen proiektua; aurrerapenak
5. Ideia eta proposamen berriak: taldeko eztabaida.
6. Galderak, iradokizunak eta bestelakoak.

BERTARATUAK: (% 53,8)

DEITUTAKOAK		BERTARATU AK	BERTARATU GABEAK	
			Arrazoia emanda	Arrazoia eman gabe
Smartin Bilbao	Saioa Martin	X		
Wilextours	Pablo Perez		X	



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Go Basquing	Iñigo García-Valenzuela		X	
Geotxiki	Aintzane Goffard	X		
Ekobideak	Imanol López	X		
Ekobideak	Bárbara Casas	X		
Iparraldea – turismoko ordezkariak	Josu Abeytua		X	
Sektoreko ordezkaria + El Transbordador de Vizcaya SL	Ainhoa Sarriegi		X	
Getxo Tours	Unai Celaá	X		
MICE Design	Virginia Pérez		X	
Cristina Laiseca ordezkaria	Cristina Laiseca	X		
Bilbao Food Safari	Oihana Oribe	X		
Punta Begoña Galeriak Fundazioa	María Peraita		X	
Getxoko Udala – Ekonomia Sustapeneko Arloa	Mirene Zabalgoeazkoa	X		
	Sonia Urdiain	X		
	Aitor Zorrilla	X		

EDUKIAK:

1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Sonia Urdiain Turismoko teknikariak hasiera eman dio bilerari. Bilerara gerturatutakoak agurtu eta aurkeztu dira, jarraian sektoreak uztaitetik urrira izan duen bilakaerari buruzko talde-etzabaida egin da.

2. Sektorearen egungo egoeraren azterketa

Interpretazio-zentro, gidari eta bidaia-agentzien azken mahaian, zeina uztaitlean egin baitzen, asko entzun zen ezohiko uda zela turisten tasa txikia zelako udalerrian; aitzitik, bertaratutako enpresen iritzia bestelakoa da udako denboraldiaren ostean: "Aieratzea" hitzarekin definitu ditu Oihana Oribek (Bilbao Food Safari) abuztua eta iraila. Adierazi duenez, bezeroetako batzuk bere webgunearen bitartez heldu zaizkio: "Interesgarria izango litzateke udalerriko turismo-enpresen web-posizionamendua nabarmentzea", gogorarazi du Oihana Oribek (Bilbao Food), mahaia lehenetsitako ekintzetako bat izan baitzen.

Imanol Lópezek eta Bárbara Casasek (Ekobideak) ere hobekuntza nabaritu dute beren negozioan: "Abuztua ondo egon zen, baita iraila ere, eta urria are hobeto". Ez dute gorakadaren arrazoia identifikatu, baina bai publiko-mota: familiak eta eskolak.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Saioa Martinek (Smartin Bilbao) ere esan du gorakada handia nabaritu duela abuztuko, iraileko eta urriko hilabeteetan: "Izugarrizko egoera egon da ekain eta uztaileko hilabeteekin alderatuta". "Udan zehar ez dut jende askorik izan, baina urrian aurreko hilabeteetan espero nituen bisitari guztiak etorri dira", adierazi du Aintzane Goffardek (Geotxiki). "Ondare-jardunaldiek suspergarri gisa balio izan dute, baina arazoa da jendeak ez dituela nirearen moduko jarduerak egiten dituzten enpresak ezagutzen– irteera erregularren egutegia izan arren", kexatu da Aintzane Goffard (Geotxiki).

Cristina Laisekak eta Unai Celaák bat egin dute kideen iritziekin.

Atzerritarren kopuruaren hazkundera nabarmentzen da batez ere.

3. Bidalitako dokumentu erantsiaren balorazioa

Hainbat alderdi politikok eta merkataritzako ordezkari egindako iradokizunen ondoren, hartutako metodologia berria azaldu du Sonia Urdiainek, hots, egindako proiektuen aurrerapena eta prozesua adierazten duen laburpen-fitxa bilera baino lehen bidaltzekoa.

Ez da horri buruzko ekarpenik egin.

4. Informazioa hurrengo gaiei buruz:

a) Getxo Bono 2023 kanpainaren udal-proposamena

Sonia Urdiainek jakinarazi du Ekonomia Sustapeneko Arloak inkesta bat bidaliko diela laster Getxo Bono 2022 kanpainari atxikitako establezimendu guztiei, Getxo Bono 2022ren hainbat alderdi balora ditzaten. Gainera, Mirene Zabalgogezcoak azpimarratu du garrantzitsua dela ahalik eta establezimendu gehienek erantzutea kanpainaren irudi osoa izateko, eta 2023ko kanpainari begira edozein ekarpen edo iradokizun egitea.

Udal-eremuan aipatu diren ideietatik honako hauek nabarmendu dira:

- Pertsona bakoitzeko bonu-kopurua murriztea.
- Tiket bakoitzeko bonu-kopurua murriztea.
- Gehieneko muga bat jartzea establezimendu bakoitzeko bonuen trukeari.
- Parte hartzen duten sektoreen kopurua murriztea.

Oro har, sektoreko ordezkariak ados daude Ekonomia Sustapeneko Arloak proposatutako neurriekin. Hala eta guztiz ere, azpimarratu dute gomendagarria dela muga bat jartzea establezimendu bakoitzeko bonuen trukeari.

b) Kontratatorako laguntzak

Jakinarazi da aurtengo urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean langileak kontratatu dituzten establezimendu guztiek aukera izango dutela, gainerako baldintzak betetzen badituzte, laster hemen argitaratuko diren kontratatorako laguntzak eskatzeko: [Getxo – Ekonomia Sustapena – Dirulaguntzak – Hurrengo dirulaguntzak kontratatorako 2022](#). Deialdia azaroan argitaratzea aurreikusten da.



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

c) Kanpo-sustapeneko hurrengo ekintzak – Bilbao Bizkaia

WORKSHOPS BILBAO BIZKAIA 2022



DINAMARCA

Copenhague



OCTUBRE
Jueves



Roadshow
ALEMANIA

Frankfurt



NOVIEMBRE
Martes

Düsseldorf



NOVIEMBRE
Jueves



ESTADOS
UNIDOS

Los Ángeles

Semana del **05**
DICIEMBRE
(pendiente confirmación)

Sonia Urdiainek funtzionamendua azaldu du, eta nazioarteko hainbat topaketen baitan egingo diren kanpo-sustapeneko hurrengo ekintzak – Bilbao Bizkaia jakinarazi ditu.

Sonia Urdianen ustez, interesgarria da ekintza aurkeztea honako helburu hau lortzeko: “enpresa bakoitzak <hartzailerekin> harremanetan egoteagatik eta haiek zuon eskaintzak nazioarteko topaguneetara eramateagatik dauzkan negozio-aukerak aztertu eta baloratu ditzan”. “Garrantzitsuena da topaguneetara doazen enpresen artean ezagutzera ematea, gure zerbitzuak ere saldu ditzaten. Ez badugu geure burua ezagutzera ematen, enpresek beti eskainiko dute berbera: Guggenheim museoa”, esan du Cristina Laisecak presente egoteak daukan garrantziari buruz. Unai Celaák "super interesgarritzat" jo du esandakoa.

Enpresen elkarteak

[ATRAE](#) – Euskadiko Turismo Agentzia Hartzailere Elkarteak

[ASOARTE. Euskadiko Turismo Agentzia Hartzailere Elkarteak](#)

[Home – Euskal BAPen elkarteak \(opce.eus\)](#): biltzar- eta ekitaldi-antolatzaile profesional diren enpresen euskal elkarteak

d) Getxo: helmuga turistiko adimendunerantz aurrera

Basquetour enpresak laguntza teknikoak ematea bost euskal helmugari

* 2022ko urria – 2023ko iraila*

- Hiru eskualde (Bidaxoa, Debagoiena, Arabako haranak)
- Bi udalerrri (Bilbo, Getxo)

SEGITTUReko metodologia

Betekizunak aztertzea bost ardatz oinarri hartuta:



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

1. Gobernantza
2. Teknologia
3. Berrikuntza
4. Irisgarritasuna.
5. Iraunkortasuna

Hori guztia, helmugaren ikuspegi integratzailea sustatuz, haren arlo guztiak barne.

Helburua da beti azken modan egotea eta udalerrriaren diagnostikoa egitea, gainerako arloei dagokienez udalerrria zein egoeretan dagoen jakiteko, estatuan ezartzen ari den metodologia horren arabera. Bestalde, ezarpen berriren bat egitekotan, helmuga turistiko adimendun diren udalerriek soilik eskuratu ditzaketen laguntzak eskaini daitezke.

e) <Getxoz gozatzeko planak 2023> kanpaina

Sonia Urdiainek jakinarazi du Getxolanek bidali berri duela "Getxoz gozatzeko planak 2023" kanpainarekin bat egiteko mezua; azaldu du doako kanpaina dela eta fitxa betetzeko garrantzitsua dela irakurtzea kanpainarekin bat egiten duten enpresek beren gain hartzen dituzten konpromisoak.

Unai Celaák (Getxo Tour) esteka edo dokumentu bat eskatu du bere webgunean argitaratu ahal izateko "Getxoz gozatzeko planak 2023" kanpaina eta, hala, bere webgunearen bitartez udalerriko hainbat jardueraren berri eman ahal izateko.

Berrikuntza gisa, Sonia Urdiainek jakinarazi du, atxikitzeke aldia aurreratu denez, oraingoan jarduerak eskaini ahalko daitezkeela urtarriletik eta otsailetik aurrera eta kanpaina Fiturren abiatzea aurreikusten dela (urtarrilak 18-22). Lehenago, martxotik apirilera egin dira, Aste Santuari begira.

Saioa Martinek proposatu du mugatzea "Getxoz gozatzeko planak 2023" kanpainaren baitan eskaini daitekeen jarduera-kopurua.

f) Flysch Bizkaia proiektua

Sonia Urdiainek jakinarazi du kanpainari atxikitzeke epeak Getxo 2023; azaroaren 15a planekin bat egiteko berberak izango direla.

Gainera, urtea amaitu baino lehen interpretazio-panel berriak jarriko direla jakinarazi du:

- Aixerrota (1)
- Galeako gotorlekua - Fuerte de La Galea (1)
- Galeako ekosistemak – Ecosistemas de La Galea (2)
- Gorrondatxearen estratotipoa – Estratotipo Gorrondatxe (1)
- Gorrondatxe hondartza – Playa Gorrondatxe (1)



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

g) Turismo-sektoreko berariazko aholkularitza- eta prestakuntza-programak

Sonia Urdiainek gogorarazi du aholkularitza- eta prestakuntza-programa ugari biltzen dituen buletina bidali berri dela, eta azpimarratu du garrantzitsua dela enpresa bakoitzak antzematea zein esparrutan hobetu behar duen, bere beharrianak ondoen aseko dituen prestakuntza hautatzeko.



[Programa de diseño de servicios](#)

¿Pensando en diseñar una nueva experiencia, se producto turístico para 2023?
Talleres y sesiones individuales en Getxo Elkartegi

Inscripciones: Hasta el 26 de octubre



[Turisberri - Servicio de innovación para empresas turísticas de Bizkaia](#) (Diputación Foral de Bizkaia)

¿Cómo puedes adaptar y definir nuevos servicios | respuesta a estas tendencias de consumo en turismo?

Inscripciones: Hasta el 10 de octubre



[Basquetour Learning](#)

Formaciones en competencias digitales específicas turismo: "Comunicación con el turista digital", "novedades en Redes Sociales orientadas al turismo"

[Programa Anfitriones](#) (Secretaría de Estado de Turismo)

Formaciones dirigidas a potenciar las competencias demandadas del sector: "Comunicación efectiva", "en Detalle", "Turismo accesible", "Instagramar establecimientos turísticos",....

h) Señaleen proiektua; aurrerapenak

Sonia Urdiainek jakinarazi du duela urtebete abiarazi zela udalerriko baliabide turistiko desberdinei buruzko informazio-seinaleekin, eta hilabete baino gutxiagoan jarriko direla Zugazarteko obrak zirela eta instalatzeke zeuden azken señaleak. Era berean, Sonia Urdiainek berak adierazi du instalazio horrekin amaitutzat emango litzatekeela ibilgailuentzako señaleak jartzeko proiektua. Ildo beretik, Sonia Urdiainek adierazi du horrekin amaitutzat emango dela señaleak jartzeko proiektua. Hala ere, gorabeheraren bat hautemanenez gero, hobetzeko iradokizunen bat izanez gero, horren berri emateko eskatu du.

Bestalde, DEAPIE interpretazio-seinaleei dagokienez, jakinarazi da hilerriko ibilbidea eskainiko dela urtea amaitu aurretik, Antonio Basagoitiren ibilbidea eta Horacio Echevarrietaren ibilbidea – azken hau partzialki.



DEAPIEren oihartzuna zalantzan jarrita, Sonia Urdiainek adierazi du: "Jende asko gelditzen da, baina denak ez dira aplikazioa deskargatzen. Emaitzak aztertzen ari gara. Ibilbidea bistaratzeko, Googletik, webgunearen bidez edo 50 hiri baino gehiagotan funtzionatzen duen Inventrip aplikaziotik joan daiteke, estatu mailan.

"Getxoren ondarea nabarmentzeaz gain, ekimen honen bitartez lortu nahi den xedea da gehienbat Bizkaia Zubian eta Portu Zaharrean egiten den turismoa deszentralizatzea. Ez daitezela udalerrian bisitatzen diren toki bakarrak izan, ibilbideen bitartez udalerriko eremu gehiagotatik ibiltzea", azpimarratu du Sonia Urdiainek, DEAPIE programaren helburuari buruz.

5. Foroko postu hutsak betetzea

Bertaratutako pertsonak beharrezkotzat jo dute Enpresen Kontsulta Foroan Interpretazio-zentro, Gidari eta Bidaia-agentzien Mahaiko ordezkaria den pertsona bidaia-agentziei lotuta egotea. Bertaratutakoek Josu Abeytua eta Iñigo García-Valenzuela proposatu dituzte, eta haiekin hitz egitera konprometitu dira.

6. Ideia eta proposamen berriak

Ez da ideia berririk edo galderarik egon.

7. Galderak, iradokizunak eta bestelakoak

Ez da galderarik egin.

INTERPRETAZIO-ZENTRO, GIDARI ETA BIDAIA-AGENTZIEN MAHAIAREN ERABAKIAK (2022-11-03)

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. "Getxoz gozatzeko planak 2023" kanpainan jaso diren planen zerrenda bidaltzea Getxo Tours agentziari, bere webgunean argitaratu dezan.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
3. Interpretazio zentro, gidari eta bidaia agentziak mahai sektorialeko ordezkari izateko hautagaitza aurkeztea	Sektoreko enpresak	Bileratik aurrera